

# 2008 SORALUZeko ARATUSTIAK



Zapatua 22:30ean  
*MozoRock lehiaketa*

Martitzena 17:00etan eta 22:00etan  
*Mozorro lehiaketak*



antolatzaileak



Sorauluzeko  
Udala



Nautserriko  
Galtzagorriak  
Jai Batzordea

Galtzagorri  
Jai Batzordea

- Entzutekuak: Montse Ordax, aretoko dantzetako irakaslea
- Kultura: Aratusteetako I. Pop-Rock Lehiaketa

sorauluzeko  
hamabostekaria 170. alea  
2008ko urtarrilaren 25ean

# pil-pilean



## Baserriko esnea, bada oraindik



**BITTOR TREBIÑO****ANDER EPELDE**

## ELKARKIDETZARAKO HEZIKETA

**K**aixo Ander!  
Formación del espíritu nacionalen hezitutako garaikideak gaittuk bixok. Gogoratuko haiz nolako baloreetan hezitzen zeban garaiko eskolak, ezta?

Nostalgia kontuak laga eta jo daigun eskoletan gauregun ezarri nahi dan “Educación para la ciudadanía” delakoari buruz kontu batzuk aipatzera.

Bere burua aurrerakoitzat duen gobernuak, LOE dela eta, aldaketak ezarri nahi ditu eskoletan. Baloreetan hezitu behar direla umeak diñue. Landuko diren gaien artean: Konstituziñuak berdintasunari buruz esaten dabena. Susmoa dot, berdintasuna baino gehixago, uniformizatzea ez ote daben bilatzen lege horrek.

Neoliberalismoak zabaldutako pentsakerekin bizitzea tokatu jakun garai honetan, bada nahiko zabaldua dagoen ustea nongizal-dearen aldeko apustua baino, gizabanakoaren aldekoa progrea goa baloratzen dan. Lege horrek ez ote daben individualizazioa bultzatuko beldur naiz Ander. Nago, eskoletan zoritxarrez, errepikatzen direla era honetako esaldiak: bereiztu daiguzen umeak, ebaluatu daiguzan umeak notak jartzen, sailkatu daiguzan batzuk eta besteak...

Lehiakorrak nahi gaittue eskoletan, amaierarik gabeko lehiari sartuta, ostadarrak zabalitzen dittuen kolore askotako dirdiraz ohartu gabe. Ezarri nahi doskuen patriotismo konstituzional horren aurrean, kolore askotako eskolaren alde apostu egiteak merezi dabelakoan nago. ☺

**Goguan hartzeko**

**Libre dagoen txoriak aise egiten du irri.**

Esaera zaharra

“

**Gizabanakoaren aldeko apustua progrea goa baloratzen da**

Bittor Trebiño

**Ez dotsegu zentzudunak eta libreak izaten erakusten**

Ander Epelde

”

**B**ittor!  
Heziketaz ez dihardugu ondo. Irakas-kuntzaz bai ondo; gauza askosartzen deusaguz umeei buruan txikitatik, ganbara ondo beteta dauke, bainagizon-emakume zentzudunak eta

libreak izaten ez dotsegu erakusten.

Gizarteak berak horretara bultzatzen gaittu, objektu hutsak izatera, erabili eta botatzekoak, balorea daben gauzei behar beste garrantzirik ez emotera, boteretsuen menpekotasunean besteen dantzara dantzatuz, nortasun gabeko gizakiak bi-

hurtuz, moden txotxongilo huts. Eskola ez da salbuespena, isla baizik. Munduko eredu lehiakorrean, besteak baino gehiago izate horretan, murgiltzen dittugu bidean erreparatu barik zuzena dan edo ez. Norberak arrakasta izatea da gakoa ( aho txikiz oso aurrera-zaleak-aurrelariak-aurrerakoiak gara, baina ekinez gero, plot!) eta horretarako denak balio dau; zelan

aurrerapen bidean atzean geratu! Eta horretxek hondatzen gaittu. Hezitzaile paper nagusia familiak betetzen dau, baina gaur egun... gurasoek umeendako denborarik hartu ez eta umeei nahi daben guztia egiten uzten dotse, dan-dana amama dauke. Umeak berak dira protagonista eta agintzen dabenak, arrazoi eduki edo ez. Eskolarengandik ez itxaron miraririk.

Eskola eskuhartzaileagoa behar dogu, ez hain zurruna, malguagoa, joera guztietara zabaldua, gizaki eta herrienganako errespetuan oinarrituta, horrela bakarrik lortuko dogu umeak hezitzea elkartasunean eta ez individualismoan. ☺



## GUTUNAK

**Euskal Herria Dugu Irabazteko !!**

Aldaketa badator, jendarteak aldaketa premia behartza jotzen duelako. Ez gaude duela hiru urte ginen egoeran, asko aurreratu dugu eta dagoeneko aldaketarako gakoak diren Euskal Herria subjektu gisa aitortzea, erabakitze eskubidea eta lurraldetasuna jendartean erabat errotuta dauden printzipioak dira. Herritarren gehiengoak bat egiten du Euskal Herria zazpi herrialdez osatutako nazioa dela, erabakitze eskubidea duela eta eskubide hori Euskal Herri osoan eman behar dela, eta hori gurtia da irabazi duguna.

Horren aurrean PSOEk eta PNVk, Euskal Herria aitortzen zuen marko berriari EZ esan zioten. Eta orain, aldaketarako motor den ezker abertzalea ahuldu nahi dute, eta iruzur berri bati bide eman, PSOEk espainiar estatuaren batasuna mantentzeko eta PNVk Espainiaren konstituzio barruan botere gestioa, negozioren kudeaketan jarraitzeko.

Euskal Herrian salbuespen egoera ezarri da. PSOEk gerra deklaratu dio mugimendu independentistari, helburu bakar batekin: gure lan, jarduera, eragin eta eskaintza politikoa ahultzea eta

**Jaio ere joan zaigu**

Gaur goizean hil da Jaio Ezenarro, gure aita hil berriaren lagun mina zena. Maite gintuena eta guretzat ere maitagarria izan dena. Ez daukadan idazle dohaina nahiko nuke sentitzen ditudanak adierazteko.

Guk ezagutu dugun Jaio, umoretsua, esaldi egoiak jaurtitzeko etorri handikoa, lagun artean solasean gustura egoten zena, esan leike bizimodu ona izan duela Arantzazu bere emaztea eta familiarekin batera. Baina gaztaroa oso bestelakoa izan zuen. Militar golpistek piztu zuten Gerra Zibilak bete-betean harrapatu zuen eta hamazazpi urterekin etxetik atera zen anaiekin batera Euskadi eta Errepublikaren alde. XX. mende osoa baldintzatu zuen izugarrikeri hartan batera eta bestera ibili behar izan zuen, frentean eta preso, hiru aldiz bakoitzean.

Sarraski hartatik bizirik atera zirenak aurre egin behar izan zioten gerraondo ilun eta luzeari. Denontzat txarra izan bazen, pobreziak, goseak, gaxotasunek ia denak harrapatzen zituzten, are

baldintzatzea, independentziari ateguztiakixteko bidean. Horretara datoz errepresio kolpeak.

Baina, eraso guzti hauek ezin dira ulertu, Ibarretxe, Urkullu eta Balzaren PNV eta Zabaletaren NaBairik gabe.

Eta zer esan Sarkozyren gobernuaren gainean, Frantziar gobernuak ere Espainiarraren eskutik dihardu Euskal independentismoaren kontra kolpatzeko garaian.

Iritsi da salbuespen egoera honi "ASKI DA", "HONAINO IRITSI DIRA" esateko ordua, Euskal Herriaren aurkako "GUZTIAK BALIO DU" ideia horri muga jartzeko.

Herri honi marko demokratikoa ekartzea Euskal Herriaren eskubideak aitortuak izan daitezen, autodeterminazioa eta lurraldetasunaren lorpenak izango dira ezker abertzaleak hartzen duen konpromisoa herri honekiko. Euskal Herria dugu irabazteko !!

### SORALUZKO EZKER ABERTZALEA

gehiago galtzaileentzat, irabazleen (horietakoak ere baziren gure herrian) umiliazioak eta jipoiak jasan behar izan zituzten. Urte asko joan ziren gauzak normaltzen hasterako.

Horrek guztiak pasa eta gero, isilik, zarata bari gure artetik joaten ari den belaunaldi horrek zer pentsatua eman beharko liguke. Batez be gaur egun gure kaleak irainez, mehatxuz eta mendeku iragarkiz zikinduta dauzkagun bezala edukita. Berriro diot, horrek guztiak pasatu eta gero, Jaiok eta besteek argi eta garbi erakutsi digute jende ona izan dela, ez direla bizi izan gorrotoak janda eta errebantxa noiz helduko zain.

Egin diezaiegun merezi duten omenaldia, gorde ditzagun gure oroimenean izan diren bezalakoak, jatorrak, atseginak. Eta bizi direnak zaindu eta maita ditzagun, gurekin dugun altxorra dira eta.

### XABIER IÑURRIETA LABAIEN

## bittartetik



Arianne Unamuno

### Itzalpeko koloreak

Ez da giro izaten komunikabideetan. Telebistan, irradian, egunkarietan... albiste onak egunez izarrak beste agertzen dira: gutxi. Hilketak, istripuak, protestak, gerrak, krisiak... Honekin kontuz ibiltzeko, beste hori txarra dela, hango hartara joatea arriskutsua dela, beste haiek gaiztoak direla... Sarri etsipena, beldurra eta konfidantza eza eragiten digu gertaera horien berri jakiteak; "badaezpada ere..." pentsatzera garamatzaten berriak.

Kalera irten eta izarrak nonahi topatzen dira, ostera. Irripar batekin agurtzen gaituztenak, euskaraz hitz egiten saiatzen zaizkigunak, bizipoza darienak, zerbait elkarbanatzera gonbidatzen gaituztenak, edozertan lagun-tzeko prest azaltzen direnak, hontaz eta hartaz ilusioz berba egiten digutenak; bizi-bizirik daudenak, garbi esateko. Egin aproba. Irtten etxetik eta kontatu egunean zehar zenbat irripar, gonbidapen, poz, eta borondate on jasotzen dituzuen. Harrituta?

Komunikabideen itzal ilunaren azpian, kolorez betetako errealtate bizia dago, joanean datozen benetako pertsonak margotzen dutena.

## Aretoko dantzak irakasten dihardu hiru urtez

### Ze dantza mota dira aretoko dantzak?

Dantza asko daude, salsa, tangoa, baltsa, boleroa... denetik egiten da. Guk hiru urte daramatzagu eta azkenaldian cha-cha-cha irakasten dugu. Koreografiak egiten ditugu eta pausoak bere izenetik irakatsi. Berez Kuban ez dute horrela, modu linealean, dantzatzeko; gure dantza modua akademikoagoa dela esaten dute. Han borobilean dantzaten dute.

### Non dute jatorria dantzak hauek?

Teoria desberdina daude. Batzuek esaten dute salsa kubatarra dela eta beste batzuek New Yorken duela jatorria. Ezin da jakin.

### Zerk erakartzen du jendea aretoko dantzak ikastera?

Soraluzeko kasuan, ondo pasatu eta barre asko egiten dutelako etortzen da jendea. Behin barreterapia egiten genuen galdetu ziguten.

### Zer izaten da zailena ikasteko?

Dantza bakoitzak bere erritmoa dauka eta bere zailtasunak, baina klase bakarrera etorritik gero ere, edozein lekutan dantza egiteko gaitasuna lortzen da. Oinarrizko pausoak, noski. Ikasle batzuk hiru urte ere badaramatzate.



Montse Ordax



Montse eta Benan irakasleak erdian

### Eskaera berezirik izan duzue?

Bai. Tarteka bikoiteak etortzen dira, ezkontzako baltsa nola dantzatu ikas-tera.

### Dantzalekuek josten zarete?

Bai. Bilbora joaten ginen orain gutxira arte, Santa Ana dantzalekura. Oso leku ona zen baina itxi egin dute. Eibarren pare bat lekutan ere badago aukera, eta Arrasaten ere bai. Ikasleak ere animatzen dira.

### Txapelketaren batean parte hartu duzue inoiz?

Ez, ez. Erakusketa egin genuen behin, baina lehiatu ez. Horretarako 5-6 ordu jardun behar da dantzan egunero, eta bestelako ardurak izanez gero, ezinezkoa da. Kanpora irten beharra izaten da ikastera eta guk ezin dugu. Gu ikasleak baino gehixeago daki-gun irakasleak gara. ☺

**klase bakarrarekin oinarrizkoa ikas daiteke**

**Pil-pilean**

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Komikixia:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**SAN ANDRES**  
ITURGINTZA  
Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak  
Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

**PLACENCIA**  
KONTSUMO KOOPERATIBA  
Esku eskura! Telf.: 943 75 13 45



# 2008an lokal berria lortzea izango da Pil-pilean erronka

Pil-pilean Euskara Elkar-teak 2007ko memoria eta balantze ekonomikoa eta 2008ko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu zituen Bazkideekin egindako Batzar Nagusian, 20 lagunen aurrean.

## Proiektu berriak habian

2007an aipagarrienak Berbalagun programaren sorrera eta jarraipena, aldizkariaren koloretako diseinu berria eta Plaentxia.com-en sorrera izan ziren.

## Bazkideengandik gertu

2008an lokal berria lortzea izango da helburu nagusia. Hedadide Sailean, Bailarako Telebistari dagokion gaian aurreraztea izango da erronka; Euskalgintzan, hasita dauden proiektuei bultzada ematea; Kulturgintzan, herriko gainontzeko taldeekin lankidetzan jarraitzea eta, Haur eta Gazte Sailean, aisialdirako proiektua. Bazkideei dagokiez, elkaratearekiko harremanak estutzea eta parte hartzea handitzeko ahalegina egingo dutela adierazi zuten aurkezpeneko arduradunek. ☺



## Legebiltzarreko autobusa izan da herrian



Parlamauto izeneko autobusa Sorluzen izan zen urtarrilaren 23 eta 24an, herritarrei Legebiltzarren berri ematea helburu duen ibilgailua. Autobusaren barrualdeko 14 ordenagailurekin, Zabaliketa Parte hartu programen bitartez, herritarrek Legebiltzarrean parte hartzeko dituzten aukerak azaldu zizkieten inguratutakoei.

## Itxaropenako tabernaren ardura lehiaketara irten da



Itxaropena jubilatu etxeko tabernaz arduratzeko, kontratazioarako eskeintzak aurkezteko epea zabalik dago. Lehiaketa bidez egingo du Udalak aukeraketa. Bost urteko luzapena edukiko du kontratuak, luzatzeko aukerarekin.

Dokumentazioa Udaletxeko bulegoan jaso daiteke eta eskeintzak aurkezteko 20 eguneko epea dago.

## Reglerok Itxaropenako lehendakaritza utziko du



Bi urtean Jubilatuen Etxeko lehendakari izan eta gero, kargua uztea erabaki du Isabelino Reglerok. Datorren martxoaren 16an egingo den Itxaropenako Batzar Nagusian bazkideek lehendakari berria aukeratu dute. Martxoaren 10era bitartean lehendakaritzarako hautagai aurkezteko aukera izango dute nahi dutenek.

## Auzolan programako kideek ekin diote lanari



2008ko Auzolan programako kideak lanean ari dira, abenduan jaso zituzten formakuntza profesional saioen ostean. Taldeko zortzi kideek egingo duten lehenengo lana herriko zenbait gune margotzea izango da.

## San Blas etako mezak

Otsailaren 3an umeen mezetan egingo da San Blas opilen be-deinkapena, 12:15ean

# 2008ko ARATOSTEETAKO EGITARAUA

## OTSAILAK 2. ZAPATUA

Goizeko 12etan, herriko kaleetan zehar: Kalejira BURUHANDI eta Musika Eskolako TRIKITILARIEKIN.

Arratsaldeko 18etan, Itxaropena Jubilatutako Etxean:

Dantza eta mozorro lehiaketa

Arratsaldeko 18etan, Plaza Zaharrean:

HAURRENTZAKO JAIA

Arratsaldeko 19etatik aurrera, herriko kaleetan zehar: Santa Ageda eskea eta "Txalxaleroak".

Gaueko 22:30etan, Plaza Zaharrean:

ARATOSTEETAKO MOZORRO MUSIKA LEHIAKETA.



## OTSAILAK 3. DOMEKA

Eguerdiko 13etan, Plaza Barrian:

SAN BLAS OPILEN LEHIAKETA

SARIAK: 1. saria 100 euro; 2. saria 75 euro; 3. saria 50 euro.

## OTSAILAK 5. MARTITZENA

Arratsaldeko 17etan, Plaza Zaharrean:

MOZORRO LEHIAKETA haur eta lehen hezkuntzakoentzat, konpartsa mailan (3 edo gehiago).

SARIAK: 1. saria 100 euro; 2. saria 75 euro; 3. saria 50 euro. Partehartzaileek CDak ekarri behar dituzte egun horretarako. Izen-ematea udaletxean.

Arratsaldeko 18etan, Plaza Zaharrean:

Galtzagorriak TXARANGA eta BURUHANDIAK.

Arratsaldeko 19etatik 20:30etara, Plaza Zaharrean:

Dantzaldia ALAIKI taldearekin.

Gaueko 22etan, Plaza Zaharrean:

Dantzaldia ALAIKI taldearekin.

Gaueko 22:30ean, Plaza Zaharrean:

MOZORRO LEHIAKETA helduentzat (DBhtik aurrera) bakarka (Sariak 75;50;25 euro) eta konpartsa mailan (Sariak 100;75;50 euro). Partehartzaileek beraien CDak ekarri behar dituzte egun horretarako. Izen-ematea udaletxean.



## TXAHAL JAI OBERRIA

Negu bukaera eta udaberria izaten da behien erditze sasoa. Bozkoitti baserriko zelaletan zapatu arratsaldean jaio zen txahala. Munduratu eta minutu pare bat geroagoko argazkia da.



**TXOKO KAFETEGIA**

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789

**MENDIZABAL okindegia**

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

**ARRANO** tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

**etxera**

**JABIER ALBERDI**

HARATEGI ARTISAU ERARA ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN PRODUKTUETAN.

**KALITATEA**

Errebal kalea 24  
Tfnoa 943 75 19 32



**Euskaldunei bideak zabalduz**

Bistan da ohartxo hau idatzi duen pertsonak gogoan izan dituela euskaldunak eta bidea zabaldu nahi izan diela. Inongo lotsarik gabe euskara erabiltzea da bidea, ohar honen egileak egin duen bezala.

**Euskaldunak oinez**

Badirudi euskaldunok ez dugula igogailurik hartzen eta hartuta ere ez dugula merezi zerbitzua geure hizkuntzan jasotzerik. Enpresa honek errespetu falta nabaria erakutsi du %70ak euskaraz dakien herri batean.

**ALBISTEAK****Kaixomaitia.com**

Halaxe dauka izena harpidetza bidezko harremanetarako euskarazko web zerbitzu berri honek. Bikote bila dabilzan pertsona euskaldunentzat pentsatutako orria da eta bertan, hainbat pertsonarekin harremanetan jartzeko bidea eskaintzen zaio erabiltzaileari. Hori bai, 18 urte beteak izan behar dira.

**Euskaraz erregistratu den lehen umea**

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak agerraldia egin du Gasteizen, lehen aldiz Euskal Herrian ume bat euskaraz erregistratzea lortu dutelako gurasoek. Aretxabaletako Erregistro Zibilean liburu berezi bat zabaldu behar izan dute jaiotza inskripzioa euskaraz burutzeko. Izan ere,

**Zer egin?**

“**Abizenen bat ofizialki erdarazko grafian badaukazu eta euskaraz jarri nahi baduzu, jo bake epaitegiko erregistrora eta euskaratu egingo dizute. Oso erraza da.**”

Zure abizena Etxeberria, Agirre edo Gorrotxategi bada, behar bada ofizialki, Echeverria, Aguirre edo Gorrochategui moduan izango duzu. Hori edo izena aldatu nahi izanez gero, Soralezko Bake Epaitegian egin behar duzu eskaera. Eraman beharreko agiriak hauek dira: NANaren fotokopia eta errolda-agiria (udaletxean eskatu). Bake Epaitegiko telefonoa honakoa da: 943 75 19 89 eta astelehen, ostegun eta ostiraletan izaten da zabalik 9:00etatik 14:00etara.

gaur egun EAEko Erregistroetako liburu ofizialak gaztelaniaz daude soilik. Umearen gurasoek jaiotze berrien gurasoak animatu dituzte haiek zabaldu eta hartutako bideari jarraitzeko, horretarako Behatokiaren laguntza erabilita.

**Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko**

Behatokia 902 19 43 32  
www.euskararentelefonoa.com

Elebide 012  
www.euskadi.net/elebide

**KABITIK kanpora****Mario Lenin Canales**

“Taberna hartzeak integratzearako atea zabaldu digu”


Guayaquilen (Ekuador) irakasleak ziren Mario eta Roxana, eta lasai eta ondo bizi ziren. Inoiz ez zen haien asmoa izan emigratzea. Baina arazo batzuk tarteko, duela bost urte Soralezera etortzea erabaki zuten, anai-arreben ondora.

**Nolakoa izan zen etorrera?**

Hasieran izugarri kostatu zitzaidan ohitzea, familia mantentzeko, inoiz esperoko ez nuen lanbideetan lan egin beharra izan nuelako: eraikuntzan. Ez nekien mailu bat hartzen ere! Minak eta negarrak pasatu nituen urtebetez. Gero fabrika batean hasi nintzen eta lau urte daramatzat bertan.

**Nolatan hartu zenuten Intxixu tabernaren kargua?**

Ekuadorren negozio batzuk izan nituen baina ez ginen tabernariak. Roxanak Batzokian lan egin da bazuen esperientzia, eta diru gehixeago lortzeko aukeragatik hartu genuen. Tabernak esfortzu handia eskatzen du baina honi esker, bizimodu umil eta duina izatea lortu dugu. Integratzearako atea zabaldu digu gainera.



• Ekuador (Hego Amerika)

**Taberna giroa oso ezberdina da?**

Hemen batetik bestera ibiltzea da ohitura. Ekuadorren jendea musika onena ipintzen duten tabernara joaten da eta bertan pasatzen du egun osoa. Asko edaten da eta errespetua galtzen dute sarritan. Nik han ez nuke sekula taberna bat izango.

**Irakasle izateko asmorik baduzue?**

Etorritakoan saiatu nintzen, horretarako jaiotze naizela sentitzen dudalako, baina euskaraz ez nekenez, ezin izan nuen. Badut euskaraz ikasteko asmoa, atea irekiko dizkidalako. Alaba nagusiak ondo daki eta hari entzuteak laguntzen dit. Tabernan ere ikasi dut, bezeroek euskaraz askotan eskatzen didatelako. Jendeak asko irakatsi digu, zentzu guztietan. Unibertsitatea da hau!

**Zer ekarriko zenuke Ekuadortik eta zer eramango?**

Hemengo ikastetxeetan dauden baliabide teknologikoak eramango nituzke hango ikastetxe publikoetara. Alderantziz, alderdi kulturalen igartzen dugu hutsunea. Guk besteak errespetu handiz agurtu, eskertu, tratatzen ikasten dugu txikitatik eskolan eta hemen gazteriaren jarrera, orokorrean, oso ezberdina da. Eta dibertitzeko modua ere bai! ☺





# Mariaje eta Marisol, esnedunak

“Entera esaten jone, baina halako enterarik ez jaon”

Saso batean goizean goiz iristen zen esnea kaleko etxeetara, jetzi berritan. Egosi eta edan. Herriko ia baserri guztietatik jaisten zen norbait, marmitek hartuta etxe esnea banatzera. Urtetan halaxe ibilitakoak dira Mariaje Gisasola eta Marisol Ariznabarreta, beste askoren moduan. Etorkizun hobe baten zain dago esnearen ofizioa.

## Zenbat behi egoten ziran?

**Mariaje:** 6-7 bat egoten ziran Osuman.

**Marisol:** Bozkoittin hiru behi eta idixa egoten ziran. Bazkaloostian, eskolarakuan, hartu eta aurrian juaten ziran behiak Txarara, herrixa alderik alde pasauta. Harek beren eskutik juaten zittunan. Gerora bozinak hasi ziranian, orduan bildurtu egiten zittunan, juan nahi ez eta... kome-rixak.

Bajeonan behi zuri zahar bat gurian, eta kuartelerako aldapan, “que vienen las vacas de Bozkoitti!”. Harek behiak jaurti pitxarra eta benga! ura edan bihar izaten jonan

hango itturrixan. Bateron batek pitxarra betetzen laga itturrixan eta Guardia Zibilak haren ontzikak zaintzen egoten zittunan.

## Zelako eguna izaten zan?

**Mariaje:** zazpirak aldian jaiki izan gara beti, esnia jetzi eta dana gertatzera. Aurreko gabian be jezten da esnia.

**Marisol:** Gero irazi marmittara eta kalera zortzi t'erdia al-dian, 9etan eskolara juateko.

**Mariaje:** neguan izotzak eta izaten zan txarra. Estaziñotik behera, entzunda nao kuartel aurrian irrist eginda juaten zirala astuak. Eta oin kotxiak eta erosotasun danak ailegau diranian, oin dana laga.

## Zeinek zekan esnia jezteko arduria?

**Mariaje:** Osuman normalian gizonetzkuak. Lehenago, aitta eta ama, bixak izango ziran.

**Marisol:** Gurian tokatzen zanak. Aitta fabrikan zebilenez, erreleua gabaz egiten jonan eta amak jezten jonan. Eta geuk be igual, kendu egingo gontzazen euker erdixak baina...

## Eta zenbat pagatzen zan orduan esnia?

**Marisol:** Asko ez behintzat. Han ibiltzen ginunazen zeozen nahixan orduan be. Esnia eruan eta “ekarrinaz bihar patatak” esaten joskunen, “ekarrinaz porruak, arrautzak...”. Beti izaten zan zeozer gehitxuago irabazteko.

**Mariaje:** Azkenera hamar duro inguru ordaintzen zan litrua, eurora aldatu aurretik.

## Zela laga zotsazuen etxietara partitziari?

**Marisol:** Azkenian etxonen nahi izaten. Jentiak asko laga zotsan hartziari. Goizian goiz jaiki egin bihar jasotzera, eta gero egosten ez bazonan, galdu.

**Mariaje:** Hiru bat urte dira laga zotsagula etxietara banatziari. Gero eta gutxiagora juan zan. Oin hamar urte edo modia etorri zan, gaingabetua edateko. Batzuk oporretara zoiazanien be ez zebe hartzen, eta hori be ez zan kobratzen.

**Marisol:** Lehenengo kobratu egiten zan, gero erdixa eta azkenera ezebez.

**Mariaje:** Oin Erresidentziara juaten naiz egunian 15 litrokin. Astegun eta jaiegun juaten naiz goizian.

*Jentiak asko laga zotsan esnia hartziari*

## Zenbat basarritan egiten zan lehen esne partiketia?

**Marisol:** Lehen danian. Bozkoittin gu gaztiak ginanian be esnia eruaten zan kalera. Esnia partidu eta gero eskolara. Bi ume esnia partitzen eta hirugarrena plazan.

## Zenbat etxetara partitzen zenduen?

**Marisol:** Askotara ezin ba partidu. Gurian 5-6 bat. Batzuk litro pare bat eskatzen jonen, beste batzuk gehixago edo gutxiago; oin azkenaldera kuartillua.

**Mariaje:** Oindala 27 urte Osuman etxe mordotara eta tabernetara banatzen zan. Erresidentziara hasi ginala, 10 bat urte izango dira, Agerrebeiztegiko Joxepak laga zotsanian. Oin haraxe eta Txurrukara eruaten dogu.

*Osuman etxe mordotara eta tabernetara banatzen zan*

**Marisol:** Esnia sobre zeguanian neuk be eruaten najonan. Baina gero... legezkuia ez don. Zeoze pasatu ezkerro, geuria ei da arduria.

## Berez ez da legezkuia leku publikuetara banatzia, ezta?

**Mariaje:** Etxietara bai, baina bestela ez. Sanidadekuak etorritakuan, ondo gordeta daguala ikusittakuan, laga egiten dotsela diñue.

**Marisol:** Ertzainak etorritakuan, etxeko frituak eskatzen jittune! Sukalderako aldia jaon.

## Beste esniak zelakuak pentsatzen jatzuez?

**Mariaje:** oin “entera” esaten jone, baina halako enterarik ez dao. Naturala hauxe da.

**Marisol:** Oin dan-dana kentzen jotsen eta gero grasa sartu. Eta astebetian ez don galtzen.

**Mariaje:** Eta hilabetetan! Zeoze eduki bihar dau horrek derrigor. Elgoibarkuak ekartzen dabena be egun batetik bestera ez da galtzen. Orduan, zeoze edukiko dau.

## 2008 hasieran %30 igo ei da esnian preziaua. Zuena be bai?

**Mariaje:** Ez ez, guria ez. Litrua euruan kobratzen dogu guk. Igoeria jakakua izango da. Gainera diru hori basarritarreri helduko ete jakue?

**Marisol:** Urrategin entzunda nao, “zu, esne haura ez zeguan ona egun hartan, eta ez dotsugu ordainduko”, baina kontrola egin eta gero, tankia hustuta, esne dana eruan jonen. Txarra badago, zetak? Horitzak (txahala eduki ostian emoten daben esnia, edateko izaten ez dana) be eruaten jittunen, iogurrak egitteko.

## Zeuren azken esneduna herrixan, Mariaje. Noiz arte?

**Mariaje:** Gurian segi egiten jako neri penia emoten dostalako lagatziak. Beti ohittuta haraxe... Baina bestela aspaldi lagata nenguan! Loturia da, egunero eruaten ibili biharra, baina pena emoten dosta lagatziak. ☺

*Hilabetetan ez galtzeko, zeoze eduki bihar dau kajako esniak*



## Esnia atepetik bota zeban kriaduana


**Marisol:** Behin kriadu zeguan bat, esne partitzen jabilenan, eta etxera goizago juatia komeni, baina batzuetan atia zabaldu ez eta bueltan juaten zonan etxera. Entzun bihar izaten jonan gero, “ez da etorten eta...”. Behin diar egin eta inok kasorik ez eta, atepetik bota jonan esnia! “ez deixela esan ez naizenik izan!”.







txiki



## Zertaz mozorrotuko zara iñauterixetan?

### Zein da zure gustuko mozorrua?



Abi Lozano, 7 urte

Animatzailez jantziko gara gelakuak eta kalia pirataz mozorrotuko naiz, amak neretzat gordeta zeukan mozorrua da eta. Bixetatik animatzaile nahixago dot, ponpoiekin, dantzan...



Luis Do Nacimiento, 8 urte

Aurten Spidermanez jantziko naiz, asko gustatzen jata eta. Armiarmak eruango ditut zintzilik eta jendia sustatu egingo dot: aaaaaaaah!



Markel Gorostidi, 7 urte

Kalian bakerua izango naiz eta eskolan pelotariz jantziko naiz, Aritz Laskurainez. Futbolari jantzia da gehixen gustatzen jatana; Errealeko Henriz jantziko nintzake.

Kalian txinatarrez jantziko naiz eta eskolan kirol animatzailez. Gelako danok Olinpiaden inguruko mozorren batekin ibiliko gara eta "Jeronimo" kantuakin dantza bat egingo dogu.



Ane Moreno, 7 urte


## Ugaraxo "Soraluze bakarra zeruan..."

Alpistea

Danbor hotsak eta danbor hotsak... zer ote da? San Sebastian bezperaren bezperan guk ere danborrada egin genuen. Donostiakoa eta Azpeitikoak dira ezagunenak baina gurean ere entzun da musika eta danbor hotsa. Donostiako martxa gure erara jo genuen; "San Sebastian bat da zeruan, Soraluze bakarra munduan..."



## KOMIKIXA



## LEHIAKETA

Mezu sekretuak zer dioen jakin nahi baduzu, kodeari jarraituz deszifratu beharko duzu.

⊛	⊙	*	⊕	⊖	⊗	⊘	⊙	⊚	⊛	⊜	⊝	⊞	⊟	⊠
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M		
■	▢	▣	▤	▥	▦	▧	▨	▩	▪	▫	▬	▭	▮	▯
N	Ñ	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	
⊕	⊖	+	✓	×	*	⊗	⊘	⊙	⊚					
1	2	3	4	5	6	7	8	9	0					



## ASMAKIZUNA

Bi aita eta bi seme arrantzara joan dira. Goiza igaro da eta, guztira, hiru amuarrain arrantzatu dituzte. Arrainen banaketa egin dute eta bakoitzak amuarrain bat hartu du. Nola da posible?





## ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Badakizu San Blas opilak egitten?

Otsailaren 3an izango da San Blas eguna. Ohituraz etxean egiten dira opilak, baina gaur egun denda askotan ere saltzen dira.

## REGINA MAIZTEGI

Langabetua



## MIREN EXPOSITO

Ikaslea




## JOSE MARI GOMEZ

Langilea



## ANDONI CALLES

Mekanikua



**E**z dakit opilak egitten. Lehen amak egitten zeban eta oin nere ahiztiak. Bedeinkatzera be ez naiz juaten eta egin bez, baina jan asko egitten dot.

**B**adakit bai. Guretxian ohiturria da; amak eta amamak egitten dittue opilak eta birramamak be egitten zittuan. Emakumiok jarraitzen dogu. Txikitan juaten nintzan bedeinkatzera baina oin ez.

**E**z dakit egitten. Normalian erosi egitten dittut opilak dendan. Asko gustatzen jataz gainera. Bedeinkatzera ama eta loibia juaten dira, nik lana eukitzen dot eta.

**E**z dakit. Gurian amak egitten dau baina nik ez dot ikasi. Peligrosua da gainera; asko gustatzen jata, eta jaten hasittakuan osua jan neike. Bedeinkatzera Ikastolatik juaten ginan baina oin ez.

## Debagoieneko Musika Eskolak Soraluzen

Gaur barixakua arratsaldeko 18:30etan hasiko da Debagoieneko Musika Eskolen kontzertua Kiroldegiko pilotalekuan. Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Soraluzeko musika eskoletako ikasle eta irakasleek hartuko dute parte.

Urtero batzen dira herri hauekako Musika Eskolak kontzertu bateratu bat eskaintzeko, eta aurten Soraluzeren txanda izango da. Herri bakoitzak bere emanaldiak eskainiko ditu eta bukaeran, aurren sortu berri den Gazteen Bandak (herri guztietako ikaslez osatua) aurreneko kontzertua emango du.

Egitarraren barruan, tangoak, habanerak, rock abestiak, klasikoak eta euskal kantu tradizionalak izango dira entzungai, besteak beste.



## MozoRock Musika Lehiaketan bost taldek parte hartuko dute

Aurtengo aratusteetako berrikuntzetako bat izango da MozoRock Musika Lehiaketa. Herriko Pop-Rock taldeei zuzenduta antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak lehiaketa hau eta dagoeneko bost taldek eman dute izena: Revel Phone, Darling Shoes, Junzaitxetxera, Punktapie eta Clavo Oxidado.

Lehiaketa otsailaren 2an, zapatuan, egingo da Plaza Zaharrean (euria bada, frontoian).

## Sariak

Sari bi banatuko dira: talderik onenak 350 euroko saria jasoko du eta euskarazko kanturik onenak 150 eurokoa.




## Santa Ageda eskera mozorrotuta irtengo dira aurten

Otsailaren 2a iñauterietako zapatua bada ere, Santa eskean baserriz baserri ibiltzeko eguna ere izango da. Goizeko 8:30ean Iratxo Goxodendaren parean elkartuko dira eta bi taldetan banatuta auzoz auzo joango dira oinez. Koplariak eta trikitilariak izango dituzte lagun; Jon Martin, Aitzol Barandiaran, Hagin Rezola eta Ainhoa Agirrezaldegi bertsolariak eta Mendotz eta Bixkai trikitilariak.

Iluntzean herriko kale eta bernetan zehar ibiliko dira.



## KOMIKIXA



**PASCUAL CHURRUCÁ, S.A.**  
Hotzian eta beruan jotako tornilluak  
Domun Santu egunerako eskaerak egiteko deitu:  
Telef. 943750006 eta 9-  
E-mail: [general@pascu](mailto:general@pascu)  
Errekalde 21 **943 75 30 11ra**

**HNOS. BENITO ANAIAK**  
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK  
Eskatu presupuesto konpromisorik gabe  
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

**Desing**  
Diseinua eta Sormena  
Poligono Amillage, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGO  
K. Z. 20.000.434  
Jon Azkorbeitia Txurruka  
KZ 20000752

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

**ARMENDIA JATETXEA**  
Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua  
Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak



# Txirrindularitzako Gaztela Leongo txapelduna soraluzetarra da



Alberto Guinea lasterketa batean.

Alberto Guinea Ordax hamasei urteko gaztea Soraluzen jaioa da baina Valladoliden bizi da. Errepideko txirrindularitzan dihardu eta Gaztela Leongo txapelduna da bigarren urteko kadeteen mailan. 2007ko denboraldian lasterketa asko irabazi zituen eta oso gogor ibili zen. "Ez nuen txapeldun izateko helbururik. Denboraldian zehar maila onean aritzea nahi nuen nik, eta horregatik nago pozik", dio Albertok. Gaztela Leongo selekzioan dago egun.

### Igoeretan ondoen

"Txikitatik gustoko izan ditut aldapak", adierazi du Guineak, "lasterketak mendate eta aldapa asko dituenen, gogorra izan arren, oso ondo moldatzen naiz".

## Laskurainen Lagunartearen aurkezpena domekan izango da



Egunez aldatu dute Aritz Laskurainen Lagunartearen aurkezpena, pilotariak partidua baitu egun horretan. Domekan 12:00etan izango da Udaletxeko pleno aretoan. 20 euro ordaindu beharko dira bertan kamiseta eta karneta jasotzeko.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Sora 2 – Martutene 2 (Erreg.)  
Sora 2 – Ikasberri 1 (Kad.)

Lazkao 3 – Sora 1 (Erreg.)  
Sora 3 – Ikasberri 1 (Jub.)  
Ilintxa 8 – Sora 3 (Kad.)

#### PILOTA

San Anton Txapelketa  
Atxotegi – Jauregi 18  
Larrañaga – Loiola 22

Koka - Begino 4  
Titin III - Laskurain 22

Titin III - Laskurain 18  
Bengoetxea VI - P.Ruiz 22

### AGENDA

#### FUTBOLA

Zapatua 26, 16etan Ezozin  
Sora – Amaiak Bat (Erreg.)


Zapatua 26, 16:30ean Deban  
Amaiak Bat – Sora (Jub.)

#### PILOTA

Zapatua 26, 16:45ean Iscarren (Valladolid)

Titin III – Laskurain  
Olaizola I – Beloki


## ZORION AGURRAK



**Ione Garai**  
Urtarrilan 20xan 20 urte  
Zorionak eta ondo pasa guapa!!!!  
Etxekuen partez



**Imanol Agirre**  
Urtarrilak 20xan 4 urte  
"Zorionak mutil haundi!!! Muxu haundi bat etxeko guztien partez"



**Peio Arantzeta**  
Urtarrilan 21ian 2 urte  
Zorionak, ze bizkor pasatu diran 2 urteak!  
Asko maitte zaittugu!



**Cristina Morales**  
Urtarrilan 23an 30 urte  
Zorionak potxola!  
Etxekuen partez



**Amaia Bedaio, Lore eta Ion Ander Murgizu**  
Otsailan 18xan 35 urte  
Otsailan 3an 4 urte  
Otsailan 18xan 6 urte  
Zorionak hirurori!

## hildakoak

JAIO EZENARRO ALBERDI  
JOSE ETXEBERRIA ARIZAGA  
FELIX AIZPIRI ARRIETA



## IRAGARKIAK

### Helduen Hezkuntza

Urtarrilaren 28tik otsailaren 1era bigarren lauhilabeterako matrikulazio epea zabalik egongo da. Informatika, ingelesa, frantsesa eta euskara. Baltegiako lokalera hurreratu edo **943 75 30 17** zenbakira deitu. **Ordutegia: 4etatik 7etara**

### Zuzenketak

167.alean kaleratutako Gabonetako zuhaitzaren gastuaren datua okerra zen. 4.500 euro baino gutxiagoko gastua zuen.

169.alean argazki "harpasuak" atalean, "bataiua" hitza beharrean "batalua" hitz okerra erabili zen. Bataiua da zuzena, beraz.

## LEHTAKETA

### AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Ze basarritatik gertu dago Santa Agedan ermittia?

- 1 Zeleta
- 2 Zabale
- 3 Untzeta

► **Saria:** Pil-material sorta (dantzako DVDa, kamisetak, pegatinak...)

► **Irabazlea:** Jose Ignacio Beretxinaga

► **Eskirola eta abutsa...**

ibaixan arrantzan egiteko erabiltzen ziran. Loifak, eskailluak, barbuak... harrapatzeko teknika bezizak garatuta zeren. Ibaixa kutsatzen hasi zanian, arrainak desagertziakin bat laga jakuen teknika honek erabiltziari.



**GILA TABERNA**  
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik  
**Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!**  
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81

**JATETXEA**  
**TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE




# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Encarna Arrizabalaga

## 1977KO SAN BLAS ETAN

**E**rregetxian etaratako argazkixa da, San Blas egunez, aurten 31 urte. Katarruari aurre egitako San Blas opilak bedeinkatu ostian argazkixak etaratzeko ohiturria aspaldikua da.

**Ezkerretik eskumara:** Emeteria Zangitu, Arantxa Laskurain, Encarna Arrizabalaga, besoetan Jose Laskurain, Itziar Agirre, Maria Pilar Juarista, besoetan Sonia Laskurain, Jesus Gil eta Amaia Agirre. 



### JAIO EZENARRO ALBERDI

2008KO URTARRILAREN 10EAN HIL ZEN,  
88 URTE ZITUELA.  
GOIAN BEGO

Elkarteko bazkide nagusia eta gazteena zeu izan zara. Euskalduna izateaz harro egoten eta euskara maizatzen irakatsi diguzu, alaitasunez eta umorez. Gogoan izango zaitugu, Jaio.

**Pil-pilean Euskara Elkartea**



### FELIX AIZPIRI ARRIETA

2008KO URTARRILAREN 17AN HIL ZEN,  
84 URTE ZITUELA.  
GOIAN BEGO

**Txurrukatik eta Kubatik,**  
beti bihotzean eramango  
zaitugunon oroimenez.